



DOTRIÑA-EGUNEKO JAIXA SAN MARTIÑEN

Denbora batian orain baiño eragin haundixagua euki eben erlijjiñuak oñatiarren bizimoduan. Hori etxian, kalian, eskolan, jaixetan eta beste hainbat lekutan argi eta garbi igarten zan. Umetan dotriña kristaua ondo ikas-tiak izugarrizko inportantzia hartzen eben irakaskuntza-sisteman. Eskoletan ezezik, elizan be erakusten zan dotriña: hartarako, astero faten giñan neskatilla-mutikuak arratsalde batian parrokixako klaustorra eta bertako abadiak nahiz emakume katekistak buruz ikasi eragitten oskuein kristautasunaren oiñarrixak, edo horretan saiaketan ziran behintzat.

Baiña etzan dana ikastia eta elizkizuna izaten. Noizian behin fiestak be eukitten gittuan. Jairik estimauena **San Martiñeko dotriña-eguna** izaten geben. Uda-hasieran zelebraitten zan, eskola eta katekesiseko ikasturtia akabo eta laister, uztaillaren lehenengo astian-edo. Bakaziñotako astegun batian faten giñan kaleko ume gehixenok goiz samar, txistulari eta guzti, San Martiñeko ermittaraiño; han mezia entzuten geben eta mezaostian armozua emuten oskuein: Oñatin sasue haretan hainbeste txokolaterixa egonda, ogixa eta txokolate-ontza pare bat, jakiña. Gero dantza, jolas eta konpetiziñuak ikusixaz edo eurotan parte hartuaz, goiz osua pasaitten geben ermitta ondoko zelaixan.

Argazkixan agiri diran mutikuak San Martin ermittako horma-kontran dagoz halako dotriña-egunen batian, batzuk armo-zaitzen diharduela oraindiok. Erretratu orain dala berrogei bat urte atarata egongo da eta honeitxek dittuzue, ezkerretik esku-mara, orduko txantxikuartxuok:

Goixenian: Migel Anjel **Aranguren**, Manolo **Irizar**, Xalbador **Astigarraga**, Migel Anjel **Oleaga**, Joxe Ramon **Arrazola**, Jabi **Alzela** eta Jon **Kortabarria**.

Erdixan: Juan Frantzisko **Peralta**, Iñaki **Azpiazu**, Eli **Alzola** eta Joxe **Mugarza**.

Behian: Joxe Mari **Arregi**, Karlos **de los Santos**, Mikel **Idigoras**, Jesus Mari **Gomez**, Joxe Mari **Astigarraga** eta Pedo Mari **Igartua**.

J. E.

Fotografixia Eli Alzolak itxittakua da eta argibidiak Eliasek berak, Joxe Mari Astigarragak, Iñaki Azpiazuk, Marije Arregik eta Josefina Guridik emun doskue.



Bidebarrieta, 7-behea
Tfnoa.-Faxa: 943 78 19 48
20560 OÑATI (Gipuzkoa)

- Erropa jasoteko puntu berri bat:
Arantxa Mertzeria: San Lorentzo, 5
Tfnoa.: 943 78 13 90
- **Astelehena, asteazken eta ostiraletan jaso eta entregatuko da erropa.**